



## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, LASARTE-ORIAKO UDALAREN 2004-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARENA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Lasarte-Oriako Udalaren 2004ko ekitaldiaren Kontu Orokorraren eta ekonomia-finantza jardueraren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena aho batez oniritzi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Txostenak kontularitza eta legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Udalaren finantza egoera aztertzen du.

Udalaren jarduera aztertzean, legezkontasunaren atalean HKEEk aldeko iritzia eman du legea betetzeari dagokionez, iritzi orokor honen gainean salbuespen batzuk egin dituela.

Hirigintzako hitzarmenak arautzen dituzten bi espedientetan Udalaren Idazkariak eta Artekariak nahitaez egin beharreko txostenak ez dituztela egin azalera da. Honez gain, espediente hauetako batean, ez dago erasota jasotako ondasunak balio-neurtzeko txostena egin denik.

Langileriari dagokionez, HKEEk azpimarratu du zenbaitetan langileen hautaketa ez dela publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gordez gauzatu. Hautetan guztietan, kontratuak aldi bateko izaera zuten.

Legezkontasuna betetzeari dagokionez, salbuespenak dituen beste atal bat HKEEk aztertutako zenbait espedientetan administrazio kontratazioak osatzen duena da. Ez betetze hauek dira zenbait kontratu esleitzean publizitate eta lehia eza, parke eta lorategietarako landare horniketan edo kultur etxean aire egokitua ezartzean, esate baterako. Beste kasu batean zerbitzu-ematea kontratatu da legeriak agintzen duen prozedurari muzin eginda.

Udal kontuei buruzko iritziaren atalean, fiskalizazio txostenak ondorioztatu du egoki erakusten dutela udal jarduera, salbuespenik batere adierazi ez duela.

Finantzaren egoerari dagokionez, aurrezki garbiaren igoera zuhurra zorpetzea murrizteko erabiltzen dela adierazi du, azken bi urteetako inbertsio maila gutxitu egin baita.